

2023-5-10

PRENTSA-TXOSTENA

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIAREN 30. JAIAREN AURKEZPENA

Gaur aurkeztu dugu prentsaurrean 2023ko ekainaren 4ean Mungian ospatuko dugun Euskal Eskola Publikoaren 30. Jaiaren bideoklipa. Prentsaurrekoan parte hartu dute abestia eta bideokliparen egileek (**STR taldeko Iker Villa eta Danae Riaño**), Ainhoa Alustiza EITB Mediako zuzendariak eta Lurdes Imaz, EHIGEko koordinatzaileak.

“JAGON” ABESTIA ETA BIDEOKLIPA

Egileak

“**Jagon**” da Euskal Eskola Publikoaren 30. Jaiaren abestiaren izenburua eta STR taldeak egin du. Iker Villa, Danae Riaño, Oihan Moreno, Lander Campos eta Xabier Bengoak osatzen dute taldea.

Abestia


“Jagon Eskola Publikoa” lelotik abiatuta, zaintzaren, babesaren eta laguntasunaren kontzeptuaren ildotik idatzi dituzte hitzak.

Denona den eta denontzat den hezkuntza publikoaren zaintza eta sustapena bermatzeko oihua da “JAGON”. Eskolan eta eskolatik haratago sortzen diren erlazioak elikatzeari eta bermatzeari abestu nahi izan diote. Euskara, gure hizkuntza, eta gure nortasunaren zaintza azpimarratu nahi izan dute ere.

Hitzak

Kantu zaharretan aipatu ez,
baina betidanik hemen gaude.
Hizkuntza batek irakatsi ziola,
herri bati nahigabe.

Urtez urte, zure begitara begira
egon arren, beste hamaika etorriko dira.
Ze argi dago oso harro zaudela,



denona izatearen aukeraz.

Hazten hasi naiz zure desiraz,
ta sortzen hasi naiz zure irriaz,
ta janzten hasi naiz zure ideiaz.
Elkar jagon, zuregatik ni naizelako.

UOOO, ELKAR JAGON!
UOOO, OZENAGO!
UOOO, ELKAR JAGON!
ZUREGATIK NI NAIZELAKO.

Eskutik helduta, asmoak batuta,
elkar elikatzearen ardura.

Nahikoa da guretzat, hau bada denentzat.
Bada leku bat amets egiteko, zuretzat.


UOOO, ELKAR JAGON!
UOOO, OZENAGO!
UOOO, ELKAR JAGON!
ZUREGATIK NI NAIZELAKO

EITB BABESLE

EITB Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren babeslea da eta babesletza-akordioaren baitan aurkeztu da Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren bideoklipa EITBren Bilboko egoitzan.

www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus

Informazio gehiago: Lurdes Imaz 688 689 877



jagon
euskal eskola
publikoaren 30. jaia
ekainak 4
mungia

denona izatearen aukeraz.

Hazten hasi naiz zure desiraz,
ta sortzen hasi naiz zure irriaz,
ta janzten hasi naiz zure ideiaz.
Elkar jagon, zuregatik ni naizelako.

UOOO, ELKAR JAGON!
UOOO, OZENAGO!
UOOO, ELKAR JAGON!
ZUREGATIK NI NAIZELAKO.

Eskutik helduta, asmoak batuta,
elkar elikatzearen ardura.

Nahikoa da guretzat, hau bada denentzat.
Bada leku bat amets egiteko, zuretzat.

UOOO, ELKAR JAGON!
UOOO, OZENAGO!
UOOO, ELKAR JAGON!
ZUREGATIK NI NAIZELAKO

EITB

EITB es patrocinador de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca y en el marco de ese patrocinio, se ha presentado hoy el videoclip en la sede de EITB en Bilbao.

www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus

Más información: Lurdes Imaz 688 689 877